

**CHRISTIANE FANDO** ABOKATUA

# «Aznarrek eskuak igurtzi behar ditu, pozarren»

Christiane Fandok kezkatu ikusten du azken asteotako bilakaera. EAJri oroitarazi dio Madrilek beti eskatuko diola gehiago eta bere kokapena hautatu beharko duela. Abertzaleen arteko gutieneko akordioa eta plataforma aipatzen ditu konponbide gisa.

Aitor Renteria | **DONIBANE LOHIZUNE**

Christiane Fandok urteetan egin izan du euskal preso eta iheslarien defentsa. Gaur egun defentsa mota hori ez badarama ere, begirada zorrotzez segitzen du egunotako zurrumbilo politikoa.

■ **Azken asteotan Batasuna legez kanpo uzteko zirimolak Euskal Herriko bazterrak inarrosi ditu. Nola ikusi duzu egoera hau abokatu eta abertzale gisa?**

Batetik, Batasuna legez kanpo uztean erabaki politikoa dago eta hor kokatzen da Espainiako Parlamentuaren eta fiskalaren jardura. Bigarrenik, Garzon epailearen jarrera dago. Lehen atalari doakionez, Aznarrek ongi baliatu izan ditu irailaren 11ko gertakariak bere jardura munduari eta espainiarrei bereziki saltzeko. «Terrorismoaren kontra bide guztiak onak dira» printzipioa baliatu dute, horretarako oinarritzko eskubide guztiak urratu behar bazituen ere. Krisi garaian frogatzen da zer diren egiazko demokraziak. Oraingoan zalantzarik ez dago. Espainian duela guti faxistak zirenak gaur egun ere faxistak dira, nahiz eta beren buruei demokrata labela ezarri.

■ **Zer deritsozu Garzonen jarrerari?**

Jurista batendako ezinago larria da urte luzetako gatazka politikoa aterabidea bere burua *El Zorro*-tzat daukan epaile baten esku uztea. Hurbil edo urrutitik Euskal Herriaren independentzia aldarrikatzen duten oro terroristak dira Garzontzat. Alabaina, saihestera uzten dute legeari begira zigorrak pertsonalizatuak direla, ezarritako kondenak ezin zaizkiela erabakia hartu aitzineko gertakizunei uztartu. Kanpotik ikusia izugarria da. Espainiak ongi baliatu du Europako Batasunaren presidentetza bere diskurtsoa saltzeko. Beren aliatuek, onspen politikoa eman ez badiote ere, isiltasun konplizea ematen diote eta gertatzen



“ «Arazoak sakon aztertu beharko dira, eta plataforma bateratuak eraiki, oinarritzko eskubideak aldarrikatzeko»

“ «EAJk ulertu beharko du sekulan ez duela askietsiko Madrilekoen guraria, beti gehiago eskatuko diotela»

ari dena ez da kritikatzeko. Historiari begira, alderdi politikoak legez kanpo utzi diren uneak nahasiak izan dira, eta nehor ezin daiteke loriatu garai horietaz.

■ **Madrilen hartu deliberoak Jaurlaritzak gauzatzen ditu. Adibide argia izan da larunbatean Bilbon gertatutakoa.**

EAJk Gernikako Estatutua onartu zuen. Ertzaintzaren sorrerarekin eta eman nahi zioten eginkizuna kontuan hartuz, orduan argi gelditu zen horrek goiz ala berant gatazkak eraginen zituela gizarte zibilean. Orduan egia zen eta orain gehia-

go. Alde batetik, Jaurlaritzak dio ez duela nahi euskaldunen arteko borrokarik, argibideak eskatu behar dizkiola Garzoni. Batetik, ulergarria izan daitekeen solasa atxikitzen dute; baina, bertzetik, Ertzaintzari jotzeko agindua ematen diote. Arazo larria da, sakonekoa, eta uste dut Aznarrek eskuak igurtzi behar dituela pozarren. Euskaldunen arteko liskarra nahi du Madrilek eta horren atarian gaude. EAJk erabaki zorrotzak hartu beharko ditu eta hautatu zein eremutan kokatzen den, Madrilekoan edo Euskal Herrikoan. EAJk ulertu beharko du sekulan ez

duela askietsiko Madrilen guraria, beti gehiago eskatuko diotela. Baina bide horretan segituz ondorio larriak eraginen ditu Euskal Herrian. Uste dut abertzaleak elkar ulertzea konde-naturik daudela ateka honetatik ateratzeko. Uste dut hausnarketa sakona egin behar dugula guztiok, baina EAJk bereziki. Ezin dira ahanzi historiaren irakaspak. Ideia mailan ETA-rengandik hurbil dagoen aitzakiaz Batasuna legez kanpo uztea onartzen bada, gero erranen dute, ideia abertzaleak aldarrikatzen dituelarik, EAJ dela ETArek bozeramailea. Krimi-

nalizazio prozesu horrek euskal gizartearen gehiengo zanpatuko du eta horrekin batera EAJ bera ere. Irudimena eta ausardia beharko da. Arazoak sakonean aztertu beharko dira, eta plataforma bateratuak eraiki, oinarritzko eskubideak aldarrikatzeko. Bestenaz, gureak egin du; garaipena Aznarren esku dago.

■ **Nola jokatu beharko lukete abertzaleek zepo horretan ez erortzeko?**

Kanpotik begira, abertzaleen arteko plataforma sortzea da bidea. Alta, zaila da elkartzeko elkarri erasoka eta irainka gabiltzalarik. Espero dut alderdi guztietan adozeko jendea egonen dela eta indar bat eginen dutela kinka honetatik atera eta elkarlana bultzatzeko. Batasuna ez ezik, euskaldun eta abertzale izatea kriminalizatzen ari dira, jende guztia dago jomugan. Alderdiak eta manifestazioak debekatzen hasten direlarik, non geldituko dira? Demokrazia hiltzeko arriskuan dago. Demokratek, abertzale izan edo ez, erantzukizuna beren gain hartzen ez badute, etorkizun beltza dugu. Espainiak abertzaleen arteko enfrontamentua suspertu nahi du eta horretara heltzeko neurriak biderkatuko ditu.

■ **Abertzale anitzek diote larunbatean Pandoraren kutxa ireki zela.**

Egia da. Baina aldi berean segur naiz EAJk Garzonen aginduak ez betetzeko erabakia hartzen badu Ertzaintzak ez duela eskurik mugituko. Zer egiten du Ertzaintzak? Erabaki politikoak gauzatu. EAJk erran dezake Garzonen erabakiak Espainiako Konstituzioaren aurkakoak direla. EAJk bereziki hori erran dezake, ez duelako neholako arazorik konstituzio horren mugarriz barna lan egiteko. Adierazpen eskubidea Konstituzioan agertzen da; beraz, ez dezatela onar Konstituzioak dioena zangopilatzea. Erabaki hori hartu balu, larunbatean ez zatekeen liskarrik izango Bilboko karraketan. Zergatik egon ziren liskarrak? Batetik, EAJk Madrilen erabakiak zalantzan ematen ditu; baina, aldi berean, haien agindua betetzen du, itsuan. EAJren jarrera erabakigarria da. Garzonen aginduak betetzea erabakitzen badu, zaila izanen da liskarrak ez izatea. Orain artean eroso egon da EAJ, zango bat han eta bertzea hemen, baina engoitik ezinezkoa izanen da hori.

**Bihar**

**Imanol Murua**

(Gipuzkoako diputatu nagusi ohia)